

Etxeko objektuak, eraldatuta



Etxeko objektuak edo elementuak aldatu egingo ditugu hainbat material, keinu eta ekintzaren bidez, funtzionaltasuna galdu eta beste forma, kolore edo esanahi batzuk har ditzaten. Arretaz jokatzuz, geure eskultura-piezak sortuko ditugu.

Helburuak

- Maite Vélazen obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Gure eguneroko espazioko objektuak eta altzariak erabiltzea sorkuntza-prozesuaren abiapuntu gisa, edozein elementu erabil baitaiteke sormen-material gisa.
- Lan-prozesu esperimentalak bizitzea, sentsazioen, keinuen eta ekintzen fluxuan zehar igaroz eta material bakoitzaren aukerak aztertuz.

Aipamenak

Ready made eta objet trouvé gaiei buruz: https://es.wikipedia.org/wiki/Arte_encontrado;
<https://masdearte.com/especiales/arte-objetual-duchamp-surrealismo-pop-art-walter-benjamin/>

Artistak

Sahatsa Jauregi: <https://www.okela.org/es/artistas/sahatsa-jauregi-azkarate>

Elena Aitzkoa: <https://www.rosasantos.net/artista/elena-aitzkoa/>

June Crespo: <https://junecrespo.com/>

Pau Figueres Ortiz: <http://www.paufigueresortiz.com/portfolio/no-home-project/>;

<http://www.paufigueresortiz.com/portfolio/repetir-el-bosque/>;

<http://www.paufigueresortiz.com/portfolio/variaciones-of-incomplete-storage-cubes/>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. . Esperimentazio formaleko ariketak egingo ditugu ikasgelako aulki batekin edo batzuekin. Hori baino lehen, galdera hauek botako ditugu: Nola lor dezakegu aulki bat aulki izateari uztea? Nola alda dezakegu aulkiaren funtzioa, itxura, eta zerbait berria sortu? Eta aulki batekin baino gehiagorekin?

- Aulki batekin jolastea: tokiz aldatzea; eraldatuko duen elementu bat sartzea, ezegonkortuko duen zerbait, adibidez; zerbaitekin biltzea; hankak kentzea; etab.

- Hainbat aulkirekin jolastea, instalazio baten moduan: Txandaka eta banan-banan, aldaketa bat egingo diogu aulkien multzoari. Adibideak: tokiz aldatu; metatu; izkinaren kontra, ahoz behera, orekan, etab. jarri. Garrantzitsua da banan-banan egitea eta gertatzen ari denari adi egotea.

- Amaitzean, honako hau planteatuko dugu: Noiz emango dugu amaitutzat ekintza? Zeri erreparatuko diogu jarduera noiz gelditu erabakitzeke?

2. Aulkiak protagonista diren obrak ikusiko ditugu, hala nola: Joseph Beuysen "Aulki koipeduna" (1960); Christoren "Wrapped Chair"(1961); Javier Muroren "Swing" (1999); Martin Creeden "Chairs" (2009); Joseph Kosuthen "Una y tres sillas" (1965); Pablo Reinosen "Thoneteando" (2005); eta abar. Beste izenburu batzuk asmatzera jolas dezakegu.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Etxeko objektu edo altzari txiki bat aukeratuko dugu, aurkitutakoa, erabiltzen ez dena, apurtuta dagoena, dituen ezaugarriengatik interesgarria iruditzen zaiguna eta landu nahi duguna. Loreontzi bat, aulki bat, erretilu bat, marko bat, apal zati bat, etab.

2. Objektuak partekatu egingo ditugu, eta alderdi interesgarriak azpimarratu. Eszenaratzea: Lurrean jarriko ditugu adostutako ordena edo logika bati jarraituz, esaterako; koloreen, tamainaren edo erabileren arabera edo kontakizun bat sortuz.

Txoko bat prestatuko dugu, hainbat material (sokak, zinta itsaskorrak, kartoi zatiak, plastikozko poltsak, oihalak, artileak, koloretako kartoi meheak, makilak, okume-taulak, etab.) eta tresna (kuterrak, guraizeak, silikonazko pistola, grapagailua, itsasgarria, etab.) izango dituen.

3. Hortik aurrera, ikaste bakoitzak saio batean edo bitan landuko du bere etxeko objektua, eta hura aldatuko –hainbat material, ekintza eta teknikarekin esperimentatu; egin eta desegin; forma, kolorea, espazioarekiko harremana eta sortzen diren aldaketak kontuan hartu– transformazio-prozesuari amaiera eman arte.

4. Piezak partekatu, eta elkarren arteko harremanak bilatuko ditugu (antzekotasuna, kontrastea). Binaka, sortutako bi piezekin (antzekoak edo kontrakoak) pieza berri bat osatuko dugu: elkartuz; desegin, beste modu batez berregiteko; espazioarekin uztartuz; etab. Agian, azken fase horretan, objektua ez da bertan egongo edo oharkabean pasatuko da.

5. Aldi berean, lagungarria izan daiteke eguneroko elementuak erabiltzen dituzten artisten lanak ikustea eta aztertzea (ikus aipamenak).

Prozesuan zehar, argazkiak aterako dizkiogu objektuari: jatorrizko forman, banaka eraldatu ondoren eta binaka landu ondoren.

Ondorioak eta lerro irekiak

• Bizitakoari buruz hausnartuko dugu, egitean oinarritutako lan egiteko moduari erreparatuz: proiektuan zehar izandako sentsazioak, aurkikuntzak, arazoak eta erronkak partekatuko ditugu.

• Erakusketa edo "taldekako eszenaratze" esperimental bat osatuko dugu argazkiekin eta aldatutako objektuekin.